

2. eranskina

NEGOZIOEN AGIRIAK ARABA MARKET BONUAK

**5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO ARABAKO
HERRIGUNEETAN KONTSUMOA SUSTATZEKO PROGRAMARI
(ARABA MARKET BONUAK) ATXIKITZEKO AGIRIAK.**

Establezimenduak ARABA MARKETeko zuzeneko kontsumorako pizgarrien programara atxiki ahal izango dira, formulario elektronikoa behar bezala beteta.

Establezimenduak edo erakundeak, atxikitzeke eskaera egitean, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Ezagutzen eta onartzen dituela ARABA MARKETen zuzeneko kontsumorako pizgarri programa kudeatzeko ezarritako baldintzak.
- Egunean dagoela Ogasunarekiko bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen.
- Programari atxikitzen zaiola eta hartan ezarritako konpromisoak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- Programari atxikitzeak berekin dakarrela hartan parte hartzea, salbu eta programa bukatu baino lehenago edozein momentutan idatziz adierazten badu hari uko egin nahi diola.
- Kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartzen duela.
- Bere establezimenduan ikusgai dagoen leku batean programaren material bereizgarria erakusteko konpromisoa hartzen duela.
- Ez diela itzuliko kontsumitzaileei eskudirurik erositakoaren prezioaren eta Araba Market bonuaren balioaren arteko aldeagatik, ez erosteko garaian, ez eta haren bidez erositakoaren itzulketa egitekotan ere.